

BERRI OROKORRAK

2018ko azaroaren 30ean 12. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi dituzue.

Soziolinguistikako klusterrak hizkuntza-ohiturak aldatu zituzten bikotekideekin eginiko ikerketarekin jarraituko dugu. Jarraian, aldaketa eman zuten bikotekideek izan zituzten zailtasunak aipatuko ditugu.

1- Zergatik aldatu edo zerk mugitu zituzten/ Motibazioak.

2-Zailtasunak.

3-Estrategiak.

4-Gakoak

2.7.- Solaskide falta..., edo solaskide egokiena

Elkarrizketa batzuetan aipatzen da norekin praktikatu faltan izatea, batez ere, gun eerdaldunetan.

Eta baita ere solaskide egokiak izatearen falta: hau da, ereduak eskaintzen dizkizutenak gaztelaniara pasa gabe, zuk poliki egin arren, entzuteko pazientzia dutenak...

2.8.- "Euskaldunberri"... betirako?

Hau elkarrizketa batzuetan bakarrik aipatzen da zailtasun moduan: euskara ikasi eta urte asko geroago oraindik "euskaldunberri" izaten jarraitzea, zeure burua euskaldunen artean bat gehiago bezala onartua ez ikustea. "... noiz bukatzen da euskaldunberri izate hori?"

2.9.- Umeen ikasketa azkarra

Beren motibazioan zailtasun gisa deskribatzen dute gutxi batzuk umeen ikasteko abiadura.

1.-Gorputzaldien saio praktiko bat gurasoekin.

Bihar larunbata, 10:00etatik 12:00etara ikastolako jangelan, LHko ikasleekin aurrera daramagun Gorputzaldiak proiektua zertan datzan erakusteko saioa izango da.

2.-Jangela-zerbitzuaren inguruko bilera.

Jangela-zerbitzuaren eskaintzaz, funtzionamenduaz, antolamenduaz eta menuez hitz egiteko bilera egingo da **asteartean**, abenduak 4, arratsaldeko **17:00etan ikastolako jangelan.**

3.-Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data.

Abenduaren 5ean izango da hurrengo Artezkaritza Kontseiluaren bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue

4.-Harria Hitz bisita-gidatua.

Urtea amaitzera doa eta... **HARRIA HITZ** bisita egiteko azken aukera bat emateko baliatuko ditugu lerro hauek.

Bihar, abenduak 1, –Mikel Laboaren heriotzaren 10. urteurrenean–, ibilbidea egiteko beste aukera bat izango duzue. Urteko azken bisita berezia izango da, gainera. Izan ere, behin baino gehiagotan aipatu izan dugu HARRIA HITZ ibilbidea ibilbide bizia dela, beste hainbat osagairekin konbinatzeko aukera ematen duena, eta oraingo honetan, **Eli Pagola bertsolaria eta Unai Gaztelumendi marrazkilaria** izango ditugu bidelagun. Ohiko azalpenez gain, bat-bateko bertsoak eta ilustrazioak izango ditugu, hortaz. Goiz-pasa ederra egiteko aukera bikaina, 10:00etatik aurrera, Usurbila gerturatzen direnentzat.

Euskal tradizioa eta modernitatea ederkiki uztartu dituen herria da Usurbil; euskal sorkuntzarekin konprometitutako herria. Usurbilek ondo baino hobeto islatzen du 60ko hamarkadan Euskal Herrian gertatu

zen kultura-eztanda, eta baita eztanda horren ondorena ere. HARRIA HITZ ibilbideak, herrigunean ikus daitezkeen zenbait elementuren bitartez, Usurbilek euskal kultura garaikidearen susperraldian jokatutako papera ezagutaraztea du helburu.

Horrez gain, **TxTxTx** Txokoaldeko Txalaparta Txokoan –Oreka TX taldeko txalapartariak Usurbilen entseatzeko eta erakustaldiak egiteko duten gunean– murgilduko gara.

Eta **Zumeta Arte Estudioa**–Jose Luis Zumeta margolariak eta bere alaba Usoak partekatutako espazioa– ezagutzeko aukera ere izango dugu.

Gehiago jakin nahi izatera, ibilbide honetan parte hartzera animatzen zaitugu.

EGUNA ETA ORDUA: **Bihar** larunbata, **10:00etan**,

EGITARAUA:

10:00: **Usurbilgo frontoian** elkartu

10:05: HARRIA HITZ bisita gidatua herrigunean (Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa Plaza, Tapiaren murala, Askatasuna Plaza, Sagardoaren Monumentua).

11:15: TXTXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita*.

12:35: Zumeta Arte Estudiora bisita*.

13:45 Amaiera.

* Joan-etorriak egiteko furgoneta zerbitzua egongo da.

HIZKUNTZA: Azalpenak euskaraz emango dira.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 688 818 017 / info@kultour.pro

Bisita DOAKOA izango da. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da (23 lagun, gehienez).

5.-Eskola kirola: Kamel Ziani II. krossa.

Abenduaren 6an, osteguna, II. Kamel Ziani krossa izango da.

Usurbilen atletismo egiten duten ikasleek ez dute izena eman beharrik.

Atletismo egiten ez dutenek parte hartu nahi badute: benjamin kategoriakoek egunean bertan eman beharko dute izena. Gainontzeko kategorietakoek, aldiz, eskolakirola@udarregi.eus helbidera idatziz eta bertan izen-abizenak eta adina adieraziz eman dezakete izena.

Krosa Muntoko pasealekuan hasiko da, futbol zelaiaren parean. Orduategiak honakoak dira:

10:15ean: infantil neskak.

10:35ean: infantil mutilak.

10:55ean: alebin neskak.

11:15ean: alebin mutilak.

11:35ean: benjamín neskak.

11:55ean: benjamín mutilak.

12:15ean: sari banaketa.

6.-Ikastolako kamisetak.

Udarregi ikastolako kamisetak Haur Eskolako zein Ikastolako idazkaritzan daude salgai. Prezioa 6 eurokoa da.



7.-Ikastolako diskoa.

Gabon edo abenduko oporren usaina hasia da jada eta jakinarazi nahi dizuegu urte honetako apirilean ikastolan sortutako eta kaleratutako gure 12 kantuen diskoa ikastolan salgai ditugula (6 euro)

Bestalde, disko hau kanporatzeko, zabaltzeko... ideiarik izango bazenute, jar zaitezte gurekin harremanetan, ikastolako kaxoian ez baitira disko hauek oso pozik egongo!

MILA ESKER!



8.-Xiberoko ikastolen aldeko otarrak.

Xiberoko Ikastolek, Gabonetako otarreak eskaintzen dituzte, hurrengo hiru helburu nagusi hauekin:

1. **Ikastolaren finantzazioan laguntzea.**
2. **Euskararen erabilera handitzea Xiberotan eta, bereziki, ikastoletan.**
3. **Tokiko ekoizleak eta produktuak ezagutaraztea.**

AHUZKI OTARRA (40€)

Ardi gazta zatia (450 gr)
Ahate gibela (125 gr)
Gurinezko gaileta paketea (150 gr)
Eztia (500 gr)
Euskal xerriki pateka (200 gr)
Euskal xerriki odolkia (200 gr)

IRATI OTARRA (52€)

Ardi gazta zatia (450 gr)
Ahate gibela (125 gr)
Gurinezko gaileta paketea (150 gr)
Eztia (500 gr)
Txahalki kontserba piperrekin, berotu eta
arrozarekin edo patatekin jateko prest (640 gr)
Euskal xerriki lukainkak (400 gr)

Zuk ere elkartasunez Xiberoko Ikastolak lagundu, gaur erein Euskararen aldeko haziak, bihar loratzen ikusteko.

Egin zure **eskaera abenduaren 10a baino lehen**, Udarregi ikastolarekin zuzenean kontaktuan sartuz elasarte@udarregi.eus.

9.-Iparraldeko ikastolen egutegiak.

Iparraldeko ikastolek, egin ohi duten bezala, 2019ko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako eta Haur Eskolako idazkaritzetan** egongo dira **eskuragarri**. Ale bakoitzaren salneurria **4 eurokoa** da.

OHARRAK ETAPAKA



HE

1.-Psikomotritzitate saioak.

Hitz-Aho guraso elkarteak psikomotritzitate saioak antolatu ditu 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat.

NOIZ: ostegunetan 16:45etik 17:45era, urtarriletik maiatzera.

NON: Agerialde eraikineko psikomotritzitate gelan.

ADITUA: Saioa Aizpurua.

IZEN-EMATEA: hitzaho@udarregi.eus helbidera idatziz abenduaren 7a bitarte.

KUOTA: 70 euro (taldea osatu ostean, ordainketa nola egin esaten duen email bat jasoko duzue).



HH

1.-Euskararen eguna.

Astlehenean euskararen eguna ospatuko dugu. Haur hezkuntzara DBHko ikasleak etorriko dira ipuinak kontatzera. Ondoren, gaztaina jana egingo dugu familien laguntzarekin. Arratsaldean, berriz, tailer desberdinak egingo ditugu eta 16:15ean Agerialdeko jolastokira abestera aterako gara.

2.-HH 4ko eta HH 5eko familientzat oharra.

HH 4ko eta HH 5eko familiei zuzendutako **bilera pedagogikoak** egingo ditugu.

Noiz: abenduaren 11n, asteartea.

HH 5: 16:45ean.

HH4: 16:45ean euskaraz.

Non: seme-alabaren gelan.

Oharra: HH3ko gelan, zaintza zerbitzua izango da.

3.-Psikomotritzitate saioak.

Hitz-Aho guraso elkarteak psikomotritzitate saioak antolatu ditu 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat.

NOIZ: ostegunetan 16:45etik 17:45era, urtarriletik maiatzera.

NON: Agerialde eraikineko psikomotritzitate gelan.

ADITUA: Saioa Aizpurua.

IZEN-EMATEA: hitzaho@udarregi.eus helbidera idatziz abenduaren 7a bitarte.

KUOTA: 70 euro (taldea osatu ostean, ordainketa nola egin esaten duen email bat jasoko duzue).

4.-Zorriak HHn.

HHko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Horregatik, **ASTEBURU HONETAN, norberak bere seme-alabei ondo begiratzea eta egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

Arazo hau ezabatzen erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.


Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:

1. Ondo begiratu familiako denei.
2. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
 - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
 - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingarriak izan eta erabiliko ditu.
3. Tratamendu berezia:

- Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
- Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

Zazpi egun pasa ondoren tratamendua berriz egin aurrekoan bezalaxe.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBUKAERA HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.



1.-Euskararen eguna.

Astelehenean Euskararen eguna dela eta, ekintza desberdina egingo ditugu. Goizean, Zumbako saioa, adin ezberdineko ikasleekin ekintzak eta herrian, euskal abestiak kantatuko ditugu. Arratsaldean, adinaren arabera, ekintza gehiago egingo ditugu: hizkuntza jolasak, pelikulak, datzak...

*12:30ean zuen seme-alabak herriko frontoian jaso ahal izango dituzue. Hala ez bada, ikastolan jaso ditzakezue kantu saioa bukatzen denean.

Autobus-erabiltzaileak Gazteleku ondoko autobus geltokian hartu beharko dute autobusa eta jangelara doazen ikasleak irakasleekin joango dira bertara.

2.-Ingeleseko CDa erabiltzearen garrantzia.

Azkenaldi honetan LHko ingeleseko irakasleok, zenbait ikaslek CDrik ez dutela edo, agian, erabiltzen ez dutela nabaritu dugu.

Ohar honen bitartez, maila bakoitzari dagokion CDaren erabilerak gure arloan daukan garrantzia azpimarratu nahi genizueke.

Beharrezkoa iruditzen zaigu CDaren erabilera gelan atzerriko hizkuntzarekin daukaten harremana etxeraino luzatua izan dadin, era horretan, entzumena, ahoskera, ulermena eta esaldien egiturak osatzeko garaian lagungarri gertatzen baita.


3.-Lehenengo ebaluaketako noten buletin banaketa.

LH3-LH4.

Kurtso hasierako guraso-bileran adierazi zitzaizuen bezala, buletinak abenduaren 5ean banatuko dira.

LH5-LH6.

Kurtso hasierako guraso-bileran adierazi zitzaizuen boletinak abenduaren 5ean banatuko zirela, baina EKI dela eta, gure barne antolaketa aldatu behar izan dugu eta banaketa astebetetz atzeratzea erabaki dugu. Beraz, informeak **abenduaren 14an** banatuko dira.



1.-Euskararen eguna.

Datorren *astelehenean*, abenduak 3, EUSKARAREN eguna ospatuko dugu ikastolan.

Egun horretarako ekintza ugari antolatu ditugu. Goizean irakasle eta ikasleak erdiko aretoan bilduko gara eta PREGOIA irakurriko dugu. Ondoren ikastola apainduko dugu, HHko ikasleengana ipuinak irakurtzera joango gara, eta DBH 4ko ikasleek EUSKARALDIAKo dantza erakutsiko diete beste mailetako ikasleei. Ondoren, herri kirolak, Euskaraokea eta euskararen inguruko jokoak izango ditugu. Arratsaldean euskal filmen emanaldiarekin bukatuko dugu eguna.

2.-Noten buletina.

Datorren asteazkenean, abenduak 5, DBHko ikasleei **1.go ebaluazioko nota-buletina** banatuko zaie.

3.-DBHko 4. mailako ikasleen irteera.

Datorren asteazkenean, abenduak 5, **DBH 4ko ikasleak Durangoko Azokara** joango dira. Txangoa ordutegi barruan egingo da.

4.-DBH 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta.

DBHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat 2019ko udan Erresuma Batuan, Irlandan eta Frantzia hiru asteko egonaldia eta ikastaroak egiteko deialdia argitaratu da.

Inork eskabidearen inguruko informazio gehiago nahiko balu, idazkaritzan jaso dezake edota www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus web-orriaren bidez.

Eskaera aurkezteko **epea abenduaren 16ra** arte izango da.